

TRAIL LASTERKETAKO ARAUDIA

I. URRUZUNO TRAIL FEST 2026

1. ANTOLAKETA

I. URRUZUNO TRAIL FEST ekitaldia Urruzuno Elkarteak antolatzen du, kirola, natura eta herri giroa uztartzeko helburuarekin.

2. DATA ETA LEKUA

Data: 2026ko ekainaren 20a
Lekua: Urruzuno auzoa (Elgoibar)
Irteera ordua: 17:00etan

3. IBILBIDEA

Modalitatea: Mendi lasterketa
Distantzia: 5,5 km
Desnibela: 260m+

Ibilbidea mendiko pistetatik, baso bideetatik eta auzoko bidezidorretatik igaroko da.

4. PROGRAMAZIOA

15:30 – 23:00	Bus Zerbitzua Txarridunatik
15:30 – 16:45	Izen-ematea eta dortsalen banaketa
17:00	Mendi lasterketaren hasiera
17:30 (gutxi gora-behera)	Lehen korrikalarien helmuga
18:15 (gutxi gora-behera)	Azken korrikalarien helmuga
18:45	Sari banaketa eta zozketa
19:00 – 23:00	Foodtruck zerbitzua
17:00 – 23:00	DJ saioa: PIRES eta J
23:00	Ekitaldiaren amaiera

5. PARTE-HARTZEA

Lasterketan 14 urtetik gorako pertsonak hartu ahal izango dute parte. 18 urtetik beherako parte-hartzaileek gurasoen edo tutorearen baimena beharko dute.

Parte-hartzaile guztiek euren egoera fisikoaren ardura izango dute.

(ADIN-GABEKOEN PARTE-HARTZEKO GURASOEN BAIMENA dokumentua azkenengo horrian.)

6. IZEN-EMATEA

Izen-ematea egunean bertan egingo da. Prezioa 5€ izango da.

Dortsalarekin batera ticket bat emango da. Amaieran ticket hori txosnan trukatu PINTXO eta EDARI batengatik.

Opari-detialetxo bat emango da lasterketa amaitzen duten partaide guztiei.

Izen-emate eta dortsalen gunean konsigna egongo da.

Ez dago dutxarik amaiera gunean. Aldatzeko leku bat izango dugu elkartearen barruan. Mahuka bat egongo da lokatza kentzeko. Komunak mixtoak dira.

7. SEGURTASUNA

Parte-hartzaile guztiek antolakuntzaren jarraibideak bete beharko dituzte une oro.

Debekatuta egongo da:

- Ibilbidetik ateratzea
- Hondakinak naturan uztea
- Beste korrikalari edo boluntarioei errespetu falta erakustea
- Material edo seinaleztapena manipulatzeko

Antolakuntzak parte-hartzaile bat kanporatzeko eskubidea izango du araudia betetzen ez badu.

8. INGURUMENAREN ERRESPETUA

Ekitaldia natura ingurune batean egingo denez, derrigorrezkoa izango da ingurunea zaintzea eta garbi mantentzea.

Ezingo da:

- Zaborrik bota
- Landaredia kaltetu
- Seinaleztapena mugitu

9. SAILKAPENAK ETA SARIAK

Parte-hartzaile bakoitzaren denbora eskuz erregistratuko da. Sailkapen bat osatuko da ekitaldiaren amaieran eta ekitaldiaren kanal ofizialetan argitaratuko da.

- Lehenengo neska / mutila > Garaikurra eta otarra
- Bigarren neska / mutila > Garaikurra
- Hirugarren neska / mutila > Garaikurra
- Lehen auzotarra > Garaikurra

Parte-hartzaile guztien artean zozketa berezi bat egingo da.

10. ERANTZUKIZUNA

Parte-hartzaile bakoitzak bere ardurapean parte hartzen du lasterketan.

Izena emateak araudi hau onartzea esan nahi du.

Antolakuntzak ez du bere gain hartuko parte-hartzaileek izan ditzaketen istripu edo galeren erantzukizunik, indarrean dagoen aseguruaren estalduratik kanpo.

11. IRUDI ESKUBIDEAK

Ekitaldian zehar argazkiak eta bideoak grabatu ahal izango dira komunikazio eta sustapen helburuetarako. Parte-hartzaileek izena ematearekin batera irudi horien erabilera onartzen dute.

12. ANTOLAKUNTZAREN ESKUBIDEA

Antolakuntzak araudia edo ibilbidea aldatzeko eskubidea izango du segurtasun arrazoiengatik edo eguraldi baldintzek hala eskatzen badute.

Beharrezkoa izanez gero, ekitaldia bertan behera utzi ahal izango da.

ADIN-GABEKOEN PARTE-HARTZEKO GURASOEN BAIMENA

Nik, _____ Jauna/Andereñoak,
_____ NAN zenbakia izanik,
_____ izeneko
adin txikikoaren **aita/ama edo tutore legala** naiz, _____ egunean jaioa,
eta **baimena ematen diot** honako lasterketan parte hartzeko:

Urruzuno Trail Fest, 2026eko ekainaren 20n ospatuko dena, Urruzuno Elkarteak, CATT Morkaikoren laguntzaz, antolatuta.

Horretarako, honakoa **ADIERAZTEN DUT**:

1. Probaren araudia osorik ezagutzen eta onartzen dudala.
2. Nire seme-alabak egoera fisiko egokian dagoela eta nahikoa prestatuta dagoela lasterketa honetan borondatez parte hartzeko.
3. Ez duela gaixotasunik, akats fisikorik edo lesiorik, proba honetan parte hartzeak larriagotu edo bere osasunari kalte larria egin diezaiokeenik.
4. Lesiorik, akats fisikorik edo bestelako baldintzarik izango balu, eta horrek parte-hartzean arrisku larriak eragin ditzakeela uste badut, horren berri emango diodala antolakuntzari, eta antolakuntzako arduradunek horren inguruan hartzen dituzten erabakiak onartuko ditudala.
5. Onartzen dudala jarduera honek berezko dituen arriskuak: erorikoak, parte-hartzaileekin edo ikusleekin izandako talka; eguraldi baldintza gogorak eta hezetasuna; bideen, errepideen egoera, eta abar.
6. Onartzen dudala lasterketako edozein arduradunek (epaile, mediku, antolakuntzako teknikari) nire seme-alabak proba amaitzeko duen gaitasunari eta osasun-arriskuei buruz hartzen duen edozein erabaki.
7. Baimena ematen diet antolatzaileei nire seme-alabaren edo nire irudien argazkiak, bideoak edo bestelako grabazioak erabiltzeko eta argitaratzeko, inolako ordainsaririk jaso gabe.

Elgoibarren, 2026eko _____ (hilabetea) _____ (eguna).

Sinadura: _____